

# Lerroburuak



**BEÑAT MUGURUZA**  
ASEGINOLAZA  
IRAKASLE ETA  
IKERTZAILEA

**B**ingen Zupiriak elipsi bidez adierazi zigun norantz dauden lerratura euskarazko hedabideak, eta denok ulertu genion, xehetasun gehiagoren beharrik gabe. Despistatu-plantak egin zituen baten batek, baina gutxi izan dira, zorionez. Bada, hemen *lerro* deituko diogu espazio politiko-ideologiko horri. *Lerroa* nolabait deskribatzekotan, ezkertiar eta abertzaleen ohiko eremua baino zabalxeagoa litzateke, gutxitan festa kromatiko bat.

Presaka egin behar izan zuen ospa Zupiriak mahai-ingurutik, lehergailua jaurti eta berehala, eta ezin izan zioten esandakoaren gainean konturik eskatu. Baina tira, esan zuena esan zuen, eta gutxi-asko denok gaude ados; askok erantzun diote haserre sare sozialetan-eta, gehienek arrazoiarekin, segur aski, baina inor gutxik kendu dio arrazoia.

Eta ia inork ez dionez arrazoirik kendu ez naiz ni hasiko orain, jendeak pasadizo hau erdi ahaztuta duenean. Bat nator diagnostikoarekin, eta arazo potoloa iruditzen zait, gelako elefante potolo ugarietako bat. A, eta Zupiriari arrazoia ematen hasita: data zehatz bat seinalatu zuen hark, Zaldibarko istripuari eta horrek ekarri zuen soka luzeari erreferentzia eginez, *lerroko* hedabideak gaizki portatu zirela eta. Zaila da oroko-

rrean hitz egitea, baina irudipena izan nuen, noiz eta aurtengo udal-hauteskundeetan biharamunean, nik segitzen ditudan *lerroko* hedabide nazionalak ospatu egin zituztela EH Bilduren emaitza onak Zaldibarren eta inguruko herrietan –barkatuko didate lerroburuak oso era makurrean interpretatu banituen–. Bestela esanda, beste alderdi batzuen ardurapean gertatutako tragediaren ondorengo haserre eta min izugarria kapitalizatzea lortu zuela alderdi batek. Eta lerratuegia baino, itsusia iruditu zitzaidan hori. Eta *lerrotik* ari naiz idazten ni ere, edo hala uste dut.

Presaka egin behar izan zuen ospa Zupiriak mahai-ingurutik, baina bestela agian gustura galde zekizkiokeen hainbat kontu; esaterako, distantzia eta deserosotasun ideologikoez aparte, prest egongo ote liratekeen *lerrotik* kanpoko kazetari saldoak euskaraz idazte hutsagatik haien burua bazterrean kokatzeko, askotan merezi baino aitortza urriagoa jasotzeko, beti “euska” etiketaren pean irakurriak izateko, nola dirulaguntza publikoak hala herritarren sostengua erregutzen aritzeko. Bestela esanda, tentatuta ikusten ote dituen hedabide sasi-elebidunetako kazetariak jauzi hori egiteko, eta ea ideien arrakalak soilik eginarazten dien atzera. ●

# Prakak



**LEIRE NARBAIZA**  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA

**E**mozioz ikusi dut nerabeak eskolara joaten gona jantzita, Mikel izeneko gaztetxoari elkartasuna agertzeko. Eurengandik irten zen ekintza xumea eta ikusgarria. Gonaren aldarria baino gehiago, edozer janzteko askatasuna aineratu nahi zuten, bernak airean lagata.

Andrazkoek prakak jartzeko eskubidearen alde egin zuten borroka etorri zitzaidan niri burura. Prakak askatasuna zirelako, ezinbesteko gonaren esklabotzatik libre. Borroka hori latza izan zen, ausartzen zirenei marimutil edota mari-bandera deitzen zietelako: nahikoa ema-

kume ez zirela, edo prostituta. Betikoa.

Ondotxo zekiten zentsoreek prakek marderaren oztopoak kentzen zituztela libreago mugitzeko, noranahi iristeko.

Inguruan baditut andreak ia amama izanda erantzi dutena gona lehenengoz, errehabilitaziora joateko txandala jantzi dutelako, adibidez. Edo alabek negu gorrirako erosi prakak, apropos, *galtzak* –pantiak, barkatu polisemia– gehi gona binomioaren desabantailak erakusteko. Ezagutzen ditut emakumeak, oraindik, pijamaren prakak baino jantzi ez dituztenak. ●

**OHARRA:** 2.708 alean, Castillo Suárezen *Galdutako ohiturez* izeneko artikuluan, berea ez zen testua argitaratu genuen. Zuzena webgunean dago eskuragai.